

Irati Gonzalez Jaimerena

ZIRKUOLA



OIHALETIK ZINTZILIK

"Buruak funtzionatzeko gorputzak funtzionatzea behar dut. Ez badut energia hori askatzen, buruak ez dit funtzionatzen. Nire bidea beti abiatu izan da gorputzetik. Burua eta gorputzaren arteko erabateko konexioa behar dut. Irunen gimnasia artistikoa amaitzeko adina heldu zitzaidanean, Donibane Lohizunera joaten hasi nintzen lagun batekin. Lagunak utzi zuenean, ordea, elkarrekin antolatzen genituenez joan-etorriak, nik ere utzi egin behar izan nuen, eta dantza estilo ezberdinak probatzen hasi nintzen, ia desesperazioz. Garaikidea, funkya, akrosport... Azken hori Gasteizen ezagutu nuen, ikasten ari nintzela. Taldeko lana eta gimnasia nahastea atsegin nuen. Eta hortik, gutxinaka, gaur egunera arte".

"Zirkuan ez dago ezer gaizki, dena dago ongi egina"

Bi karrera ikasi ostean, hezkuntzako zerrenda publikoetan izena eman eta irakasle lanetan hasi zen Irati Gonzalez Jaimerena irundarra. "Dena lortu duzu", esaten zion inguruak. Dantza urbanoa egiten zuen orduan, baina ume zenetik mugitu izan du gorputza. Eta hezkuntza formalean ongi egon arren, ez zen "dena" berarentzat. Dantza, akrobazia eta oihalen mundua ezagutzera eramane zuen lagun batek, eta geroztik, gozatzen ari dela guk buruz behera ikusten dugu, izan plazako ikusgarrietan edota Zirkuola zirku eskolan.

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  IRANTZU PASTOR

Nola eta noiz hasi zinen oihalekin?

Oihalen mundua ezagutu nuen garaian irakasle nintzen eskola publikoan. Oso ikasturte zaila izan zen niretzat. Alde batetik, lana nuelako, baina, bestetik, ikaragarri gustatzen zitzaidalako deskubritzen ari nintzen hori. Eta ohartu nintzen, jendarteari begira "dena" nuen arren –lan finkoa esan nahi dut–, niretzat hori ez zela aski; horrek ez ninduela betetzen.

Lehenagotik ezagutzen nuen Koldo Arakistain, baina orduantxe hasi nintzen berarekin akrobazia bikoitza egiten. Ongi konektatzen genuen, oso gustura geunden biok. Magia egiten genuen. Egun batetik bestera Gure Zirkuez hitz egin zidan, eta elkarrekin zerbait egitera animatu. Hala egin genuen. Berehala ohartu nintzen hori zela nik nahi nuena eta kosta ahala kosta hortik jo behar nuela. Ez nuen damuaren arantzarik nahi nigan. Ez nuen urteak aurrera egin eta atzera penaz begiratu nahi. Gerora ekin nion nire bide propioari, Gure Zirkua izan zen horretarako tranpolina.

Eta oihalak zergatik?

Oihalekin ari zarenean, parez pare ari zara. Ez naiz ni oihalen aurka, oihalekin batera baizik. Burua zuri gelditzen zait, egiten ari naizen horretan oso zentratua. Ahantzi egiten dut beste dena. Gainera, ikasketen edo sorkuntzaren bidea amaigabea da. Ez naiz guztiz autodidakta, garatzen laguntzen nauen jendea ere badut inguruan, eta hori ere aberasgarria zait.

Oihalena oso estetikoa da, fina, elegantea, baina, aldi berean, baita oso gogorra ere. Indar handia behar da, malgutasuna, eta sufritzea ere gustatu behar zaizu. Erre egiten du. Sukaldeko olio erredura batek bezainbeste. Horri aurre egitea motibazio bilakatzen da niretzat, eta minari plazer puntua topatzen diodan une hori sekulakoa da.

"Dena" ukate hori, "dena" ez da berdina denontzat.

Hezkuntza formalean nuen egonkortasun hori ez zen dena niretzat. Hautu bat egin behar nuen. Ez nuen batere argi, baina hainbeste gustatu



"Zirkua oso erreminta integrala izan daiteke barrura begira jartzeko, norberaren gaitasunak ezagutu eta ustezko mugak apurtzeko"

zitzaidan eta hain ongi eta hain bete sentitu nintzen zirkuaren esperienziarekin... Apustu bat egin behar izan nuen: barruak entzun eta aurrera egin.

Zirkuaren bidez zerbait gehiago konartzeko beharraz sortu genuen Berdinki konpainia. Praktika ikusgarria izatetik harago, bada iruditeria eraldatzeko tresna bat ere. Guk iruditeria abordatu nahi genuen, eta berau berdintasunez eta euskaraz eraiki eta blaitzeko ilusioa dugu. Berdinki konpainia sortu genuen lehenik, kaleko sorkuntza sustatzen duen "Karrikan" deialdira aurkeztu ostean, eta berehala ekin genion "Mikra" ikusgarria sortzeari. Bertan botere harremanak eta genero rola jartzen ditugu erdigunean. 2020ko irailean hasi ginen, eta 60 emanaldi egin ditugu.

Hori batetik, eta bestetik Zirkuola.

Berdinki sortu eta berehala osasun izurritea gertatu zen, eta hor berriz ere hankaz gora sentitu nuen dena. Atzera egiteko garaiz nembilela pentsatzen nuen, baina eutsi egin genion, eta eskerrak. Eta Zirkuolan dena topatu genuen, Adunan bertan. Urratsa eman genuen gure entrenamendurako

eta sorkuntzarako espazio zena zirku irakaste moduan erabiltzeko. Sortzeaz gain irakatsi ere egin nahi genuen, eta hala, Gipuzkoako lehen zirku eskola euskaldun eta feminista sortu genuen. Garrantzi handia ematen diogu euskaraz ekiteari. Azken batean, gure ama hizkuntzan bizipen positiboak ukatea oso garrantzitsua da, eta hor hutsune handia dago oraindik Euskal Herrian. Zeren ez baita posible zirku ikasketa ofiziala hemen gure hizkuntzan egitea, eta beraz, grina hori dutenentzat, bada harrobia sortzeko modu bat ere. Guk ukan ez genuen hori eskaintzeko gogoz gaude.

Ohartzen zarete egin duzuenaren eraginaz? Alegia, ordura arte erdaraz zegoena euskaraz egitearena?

Gure xumetasunean, bai, ohartzen gara. Guretzat ezinbestekoa zen euskaraz jardutea. Sortzen ari garenean geure buruarekin ari baikara solasean. Eta norbera bere buruarekin aritzen denean ama hizkuntzan mintzo da. Haurrei aukera hori eman nahi genien. Bizkaian badaude zirku eskolak, baina ez diote hizkuntzari

halako garrantziarik ematen.

Zirkuola, behar pertsonaletik hasi zena, sekulako espazio bilakatu da. 180 ikasle iraunkor inguru ditugu, astero-astero etortzen direnak, eta bestelako ikastaro ugari ere eskaintzen ditugu, aste tartzet edota asteburutan. Hilean behin, adibidez, zirku familia eskaintzen dugu. Haur eta gurasoek primeran pasatzen dute elkarrekin ariketa horiek egiten. Oso momentu politak bizitzen ditugu eta oso eskertuta gaude Zirkuolan sortu den komunitatearekin.

Zer eman dezake zirkuak?

Zirkua oso erreminta integrala izan daiteke barrura begira jartzeko. Norberaren gaitasunak ezagutzeko, ustezko mugak apurtzeko. Gainera, zirku edonork egin dezake. Haur zein heldu, altu zein baxu. Balio asko landu daitezke, garen pertsonala gauzatu, eta hori dena lehiarik gabe. Zirkuaren ez baitago ezer gaizki, dena dago ongi egin. Hau ez da zuria ala beltza, baizik atsegin dut ala ez. Beraz, lerro hauek baliatuz, zirku atsegin duen edonork animatu nahi nuke Zirkuola ezagutu eta ikastaro eta antolatutako ekintzetan parte hartzera. ●